

**ZUZENBIDE FAKULTATEKO BERDINTASUN BATZORDEAREN BILERAKO  
AKTA. 2014ko IRAILAK 16**

**Batzordeko kide hauek bertaratu dira:**

- Sofía ARANA (Irakasleak eta Ikertzaileak)
- Maggy BARRÈRE (Irakasleak eta Ikertzaileak)
- Maite BARRUETABEÑA (Presidentea)
- Arantza CAMPOS (Irakasleak eta Ikertzaileak)
- Garbiñe ESTEFANO (Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak)

**Batzordeko kide hauek ez dira etorri:**

- Aitor BENGOETXEA (Irakasleak eta Ikertzaileak): ez datorrelako barkamena eskatu du
- Leire IMAZ (Irakasleak eta Ikertzaileak): ez datorrelako barkamena eskatu du
- Ikasleen ordezkaria

Berdintasun Batzordea Donostiako Zuzenbide Fakultateko Batzar Aretoan bildu da 13:00etan, bere presidentea egindako deialdiaren arabera.

**Hartutako akordioak:**

- 1) Aurreko akta onartu
  
- 2) Batzordearen berrantolaketa: Maite Barruetabeñak Berdintasun Batzordeko presidentzia uzteko nahia agertu du. Lan honekin batzordeko nork jarraitu nahiko ote lukeen planteatu da. Hasiera batean bertaratutako inork ere ez luke erantzukizun hori hartuko. Hori dela eta, Maite Barruetabeñak adierazi du etorri ez diren kideekin hitz egingo duela, ez baitute bere asmoen berri izan; inork ere ez balu kargua onartuko, Arantza Camposek onartzeko prest legokeela esan du.
  
- 3) 2013/2014 ikasturtean burutu ez ziren jarduerak gogorarazi:
  - A) Fakultateko hainbat zerrendaren azterketa: Arantza Camposek bildutako datuak interpretatu eta baloratu beharra dago.

- B) Teresa Nuñorekin hitz egin Berdintasun Zuzendaritzatik kanpainaren bat abian jartzea egokia ote litzatekeen ikusteko, gure unibertsitateko pertsonarik zaugarrienekin (bekadunak, ordezkioak...) jokaera matxistak, gehiegikeriazkoak eta baztertzailak saihestu beharraz kontzientziatzeko.
- C) Kudeaketa bibliografikoa: Garbiñe Estefano eta Maite Barruetabeña 2014ko ekainean elkartu ziren Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko errektoreordearekin (Maite Zelaia). Bilera hartan proiektua azaldu zen eta errektoreordearen esku utzi zen ideia abian jartzea, gure Batzordeko lan esparruaz harantzagokoa baita.
- 4) 2014/2015 jarduerak.
- A) Fakultateko pertsonalari mezu elektronikoa igorri bibliografia eguneratzeko.
- B) Espazio publikoak pertsonalizatzeko ekimenarekin jarraitzeaz zalantzak daude, aurreko urteetan parte hartzea oso txikia izan baita.
- C) Aurreko ikasturtean antolatutako hitzaldietara oso jende gutxi joan zela gogorarazi da. Hori dela eta, Batzorde honetako kideok beste formatu bateko jarduerak pentsatu beharko ditugula proposatu da. Film zikloren bat egiteko aukera aipatu da, baita GKE, elkarte edo plataforma batzuk gonbidatzea ere egiten dituzten jarduerak azaldu ditzaten fakultatean.

13:35ean amaitu da bilera.

Donostian, 2014ko irailaren 16an.

Sin.: Maite Barruetabeña

(Batzordeko presidentea)